

# ARGITXOREN KANTA



“HARRI MURRI ZAPERO

BERO, BERO, BERO

HAURREK EGIN EUSKARAZ

ORAIN ETA GERO”

HARRI MURRI ZAPERO  
BERO, BERO, BERO  
HAURREK EGIN EUSKARAZ

ORAIN  
ETA  
GERO  
Neri deitzen didate  
Argitxo iratxoa  
Eskuan kriseilua  
Buruan txanoa  
Txiki-txikia naiz ni  
Mendiko magoa  
Leizezuloa utzi  
Ta hirira noa.



Ni ezkututzen naiz  
Edozein txokotan  
Motxilan, poltxikoan  
Edota karnetan  
Egunez ikastolan  
Nabil gehienetan  
Ta gauetan sartzen naiz  
Haurren ametsetan.

HARRI MURRI ZAPERO  
Ezin nauzu ikusi  
Ez eta ikutu  
Baina Argitxo beti  
Zu ikusten zaitu  
Eta ni nahi banauzu  
Gertutik sentitu  
Faborez eta masedez  
Euskaraz mintzatu.

MURRI ZAPERO  
Gauza harrigarriak  
Egiten badakit  
Magia ikasi nuen  
Txiki txikitatik  
Opari asko dauzkat  
Zuentzat gorderik  
Jolasorduak ere  
Luza ditzaket nik.

HARRI MURRI ZAPERO  
Hitza: josean Ormazabal  
Musika: jon Ander Larrañaga

Egileak: 4 urteko umeak

Egileak: 4 urteko umeak